



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/12

## **Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak aurton Mentatlon Bilbao kirol ekitaldian parte hartzen dabenean hamar ordezkariak jaso ditu Gernikako Batzarretxean**

**Topaketak Estaduko hainbat lekutik etorritako eta buruko osasun arazoak dituen kirolariak alkartuko ditu**

Buruko arazoren bat daukien eta irailaren 11tik 14ra Mentatlon Bilbao izenekoaren hirugarren edizioan parte hartuko dabenean hainbat autonomia erkidegoko 160 kirolari inguruk Gernikako Batzarretxea bisitatu dabe gaur goizean. Bertan Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, Joseba Gezuraga Mahaiko Presidenteorde eta EH Bilduko batzarkideak eta Elsa Pamparacuatro Mahaiko Bigarren Idazkari eta Podemos Bizkaiko Batzarkideak emon deutse ondo etorria.

Gernikako Arbolaren azpian, Bizkaiko Batzarretan bertan, emon jako hasierara, Batzar Nagusietako Presidentearen berbetan “motibazioa, sakrifizioa, entregea, norberaren burua gainditzea eta esfortzua” batzen dituan kirol ekitaldiari.

Hirugarren urtez jarraian, AVIFES alkarteak (Buruko Gaixotasuna daukien Personak eta Senideen Bizkaiko Alkartea) antolatu dauen Mentatlon Bilbaok hamar autonomia erkidegoko atletak alkartuko ditu, “buruko gaixotasuna bizitzaren parte eta kirolaren parte be badala erakusteko” helburuz, Jose Ignacio Martinez Menaya AVIFESeko presidenteak azaldu dauen moduan.

Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkari gorena izanda, Ana Otadui erakunde horrek euren kausari emoten deutson laguntzea erakutsi gura izan dau: “buruko gaixotasunen ganeko klixer faltsuak apurtzen lagundu gura dogu, buruko arazoak daukiezan personak ganeko iraganeko estigmak alde batera itzi eta daborduko egunero gero eta normalagoa danaren normalizazioan aurrera egin”.

“Gutako inor ez gagoz gure bizitzan buruko gaixotasuna edo arazoa izatetik libre”, gogoratuaz gura izan deutse Presidenteak bertan batu diran personei.

“Seguru nago lehiatzeko eta gozatzeko gogo handiz zatoze, baina, batez be, guztion etsaiari irabazteko gogoz: estigmari”, adierazo dau AVIFESeko presidenteak, partaideei alkartasuna, adiskidetasuna eta gizarteratzea “gure marka onena” bilakatzeko konbitea eginez.

Batzar Nagusietako Presidenteak gidauta, ordezkariak eta AVIFESeko kideak Foru Batzarretako egoitzaren leku garrantzitsuenak bisitatu ditue, eta hobeto ezagutu ahal izan dabe Bizkaiko Batzar Nagusien historia (Euskadi kanpotik etorri diran personek, batez be).

Bisitea gogoratzeko, ordezkariak bakoitzeko kideek Ohorezko Liburuan sinatzeko aukera izan dabe. Topaketari bukaera emateko, ekitaldia osatzen daben sei modalidadeetan taldeek izango dituen gurutzaketak zozketatu dira. Lehiaketa gehienak bihar izango dira.

## MENTATLON BILBAO 2018

Jose Ignacio Martinez Menayak autortu dauenez, Mentatlon Bilbaok “urtero haztea lortu dau, taldeei eta kirol diziplinei jagokenez”. Edizino honetan, Andaluziatik, Aragoitik, Asturiasetik, Gaztela-Leonetik, Gaztela-Mantxatik, Galiziatik, Errioxatik, Valentziako Erkidegotik eta Euskaditik etorritako 160 kirolarik topaketea osatzen daben sei modalidadeetan hartuko dabe parte: Areto futboleant, Mahaiko teniseant, Padelean, Petankan, Runnig-Atletismoan, Fronteniseant eta Igeriketant.

Lehiaketa gehienak bihar, irailaren 13an, izango dira, Txurdinagako eta San Inazioko kiroldegietan.



NOTA DE PRENSA

12/09/18

## **La Presidenta de las Juntas Generales recibe en la Casa de Juntas de Gernika a las diez delegaciones que participarán este año en el evento deportivo Mentatlon Bilbao**

**La cita reunirá a más de un centenar de deportistas con enfermedades mentales de todo el Estado**

Alrededor de 160 deportistas de distintas comunidades autónomas, que padecen algún trastorno mental y que tomarán parte en la tercera edición del Mentatlon Bilbao entre el 11 y el 14 de septiembre, han visitado esta mañana la Casa de Juntas de Gernika. Allí han sido recibidos por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; el Vicepresidente de la Mesa y juntero de EH Bildu, Joseba Gezuraga; y la Secretaria Segunda de la Mesa y apoderada de Podemos Bizkaia, Elsa Pamparacuatro.

Bajo el Árbol de Gernika, en la propia Cámara vizcaína, se ha dado comienzo a un evento deportivo que aúna, según la Presidenta de las Juntas Generales, “motivación, sacrificio, entrega, superación y esfuerzo”.

Por tercer año consecutivo el Mentatlon Bilbao, organizado por la asociación AVIFES (Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental), reunirá a atletas de diez comunidades autónomas diferentes con el objetivo de “visibilizar que la enfermedad mental es parte de la vida y que también es parte del deporte”, tal y como ha explicado Jose Ignacio Martínez Menaya, presidente de AVIFES.

Como máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui ha querido transmitir al conjunto de deportistas el apoyo de la institución a esta causa: “Queremos contribuir a romper falsos clichés sobre las enfermedades mentales, a dejar definitivamente a un lado pasados estigmas sobre las personas con trastornos mentales y avanzar más en la normalización de lo que ya es cada día más normal”.

“Y es que ninguno estamos exentos a lo largo de nuestra vida de tener una enfermedad o trastorno mental.” ha querido recordar la Presidenta a las personas allí presentes.

“Seguro que venís con muchas ganas de competir y disfrutar pero, sobre todo, con ganas de vencer a un enemigo común: el estigma” ha declarado el presidente de AVIFES mientras animaba a los y las participantes a convertir la solidaridad, el compañerismo y la inclusión en “nuestra mejor marca”.

Dirigidos por la Presidenta de las Juntas, el conjunto de delegaciones y representantes de AVIFES, ha recorrido las principales estancias de la sede parlamentaria foral y ha podido

conocer con mayor profundidad (especialmente aquellas personas provenientes de fuera de Euskadi), la historia de las Juntas Generales de Bizkaia.

En recuerdo de esta visita, representantes de cada delegación han tenido la oportunidad de firmar en el Libro de Honor. El encuentro ha finalizado con el sorteo de los cruces de los equipos de las seis modalidades que conforman este evento y que competirán, en su mayoría, mañana.

#### MENTATLON BILBAO 2018

El Mentatlon Bilbao ha logrado, según ha reconocido Jose Ignacio Martinez Menaya, “crecer cada año tanto en equipos como en disciplinas deportivas”. En esta nueva edición un total de 160 deportistas de Andalucía, Aragón, Asturias, Castilla-León, Castilla-La Mancha, Galicia, La Rioja, Comunidad Valenciana y Euskadi participarán en las seis modalidades que conforman este encuentro: Fútbol Sala, Tenis de Mesa, Padel, Petanca, Runnig-Atletismo, Frontenis y Natación.

La mayor parte de las competiciones tendrán lugar mañana, 13 de septiembre, en los polideportivos de Txurdinaga y San Ignacio.